

## Tigreak buztana hankartean

*The tiger's tail*, Britainia Handia-Irlanda, 2006.  
Zuz: John Boorman. Akt: Brendan Gleeson, Kim Cattrall, Sinead Cusack, Ciarán Hinds. 103 m.

Iaz Donostiako Zinemaldira joan ginen ikustera eta *Excalibur* filmaren zuzendari ingelesak zer edo zer interesgarria eskainiko zigulakoan geunden, baina ikusle despistatua ohartarazteko asmoz gatoz oraingoan, aste honetan bertan Euskal Herriko zine aretoetan estreinatu baita *The tiger's tail*: Irlanda ikusteko gogoia duenak, bertako pub giroa, bertako kostaldea eta bertako euria, agian aurkituko du erakargarritasunik pantaila handian. Gainontzekoek zaila izango duzue ez aspertzera.

Besteen nortasuna ordezkatzeko duten *psicokiller* eta pertsona bakartien istorioak dagoeneko ezagun ditugu zineman eta horien bertsio lighta kontatzen digu Boormanek: gizon aberatsari etxea, familia eta lana lapurtzen dio bere biki ezezagun eta behartsuak –erazegi, esan dezagun—. Ordura arte, dena den, filma ez doa gaizki: egunkarietako fitxan jarri dioten “thriller” sailkapena nahiko duin mantentzen du. Hortik aurrera, drama, surrealismo eta umore beltzeko gagen nahasketan hondoratzen da. Diruak ez omen du zorientasuna ematen eta egungo kapitalismoaren kritika izan nahi



duen ipuin moralista hau ezagunegia dugu jada. Hala, aberats ohia –komunismoa miresten duen semeduna– konturatuko da zeinen libre bizi den ondasunik gabe. Izan ere, gure protagonistarentzat askoz hobe da behartsuentzako aterpetxean gaua pasatzea eta zoroetxean bukatzea *cuatroporcuatro* eta jauregi itxurako etxebizitza edukitzea baino. Ez gara gu izango materialismoaren apologia egingo dugunak, baina errealismo pixka bat gehiago espero genuen... Hala eta guztiz ere, Irlandako paisaiak ikustera hurbiltzen denari ez diogu amaiera zapuztuko: Boormanek Hollywoodeko produktoreen bati lapurtu dio nortasuna eta *the end* zorientsu eta sinesgaitz horietakoa filmatu du. Onena, dudarik gabe, Brendan Gleeson protagonistaren antzezpena.

MIKEL GARCIA

## kulturagenda

Ekainaren 5etik 12ra



Urdaneta kalea, 9 | 2006 donostia

### Erakusketak

Jose Ramon Amondarain  
Sin fin. Islaren isla  
Apirilaren 19tik ekainaren 16ra  
Erakustaretoa

Isidoro Guinea  
Eta dekorazio arteak  
Apirilaren 25etik ekainaren 16ra  
Ganbara aretoa

Ordutegia: 10:30-14:00 / 16:00-20:30  
Igande eta astelehenetan itxita

### Jardunaldiak

Maria Zambranoren  
pentsaera poetikoa

Ekainak 5. Hizlaria: Rafael Argullol  
Ekainak 6. Hizlaria: Jesus Aguado  
Ekainak 7. Dokumentala: Maria Zambranorekin elkarrizketa filmatua. Hizlaria: Jose Miguel Ullan

Areto Nagusia 19:00etan



Kristobaldegi, 14 | 2004 donostia | www.arteleku.net

### Berbaoc

Vuk Jevremovicen  
animazio eta soinu tailerra  
Ekainaren 18tik uztailaren 18ra

Koordinatzailea: Isabel Herguera

Gonbidatua: Xabier Erkizia

Ordutegia: astelehenetik ostiralera,  
10:00-14:00 eta 16:00-19:00

Plaza kopurua: gehienez 5.

Izena ematea: ekainak 11

